

Mitxelinak

Joxean Agirre

Bada Selma Lagerlöfen liburu baten hasieran (“Nils Hogelsson bidaia harrigarria”) antzara migratzaileen eszena bat gogoeta poetiko askotarako bidea ematen duena. Antzarak hegan doaz zeruan barrena triangelu bat osatuz eta beren txilio karriariak eginez. Eta Nils mutikoaren barriaren gainetik igarotzean bertako antzara domestikoak asalatu egiten dira edo hunkitu beren kide basatien garrasiak entzutean eta korrika hasten dira batera eta bestera eta hegaldatzeko imintzioak egiten dituzte modurik patetikoenean, horietako batek, antzara gazte batek, Nils txikia hanketatik zintzilik daramala, hegaldatzea lortzen duen arte.

Hasi gara ehiztarien lehen tiroak entzuten, aurki hasiko dira usoak pasatzen eta haien atzetik antzarak, gezi formako taldeak osatuz, zaharrenak, esperientziadunak, aurrean eta gazteenak atzetik, eta ikuskizun hori ikusten dudan bakoitzean bururatu ohi zait gizakiok ere antzara domestikoak bezala jokatu ohi dugula artista handi bat edo politikari ausart bat ezagutzen dugun bakoitzean eta hasten garela gu ere, antzara domestikoak bezalaxe, hegaldatzeko mugimendu patetikoak egiten, baina ez garela gai aire-ratzeko, eltzerako gizenduta gaudela, hegaldatzeko alfer.

Kataluniako protestak hasi zirenetik izan dut irudipen horixe, gure artean

abertzale izeneko askok gantz gehiegi dutela, gizenegi daudela haien atzetik abiatzeko.

Arzallusenak ez ziren metafora literarioak, baina bai mundu guztiak ulertzeko modukoak eta mitxelinen arazoa aipatu zuenean garbi dago antzara gizenduez ari zela, eltzerako bai baina hegaldatzeko ezgai direnez. Askatasunaren bidean doazen herrialdeen kantuak ederrak iruditzen zaizkigu, mugimendu patetiko batzuk egiten ditugu, baina bertan goxo gelditzen gara, ez diezazkigutela ukitu geure ongizatea, gure kontzertua, estatutua eta batez ere eskuinetik etortzen zaizkigun botoak. Bestela ezin da ulertu Llotja de Mareko adierazpenarekin gertatua. •

Asertibitatea

Nekane
Zinkunegi
Barandiaran

Ez dakit gaixotasuna ote den ezetz esaten ez jakitea. Baina, horren ondorioz, egonezin fisikoa sentitzeraino hel daiteke bat. Bada jendea kostatzen zaiona edozein proposamen edo eskaerari ezetz esatea: harekin batere zerikusirik ez duen zerbaitekin okupatuta egon behar du. Auskalo, parekoak ezezko-rik onartuko ez duela iruditzen zaiolako izango da. Edo egoera ezerosoak kudeatzeko gogorik eta ausardiarik ez duelako.

Arazoa da egoerarik ezerosoenak ere orduan sortzen direla, gauza gehiegiri ezetz esatean. Baietz esandakoak eta hartutako konpromisoak gehiegi direnean, pila-tzen direnean. Orduan, denera iritsi ezinagatik sortzen da egonezina, inpotentzia, eta ingurukoei huts egiteko beldurra. Egoerak gain hartu, eta modu onean edo zer esatera datorrenari ongi erantzuteko pazientzia ere galdu egiten da.

Asertibitatea, hain justu, egoera gogorrei lasaitasun eta segurtasunez erantzuteko gaitasuna omen da, gatazkak arra-

zoiz konpontzeko jarrera. Seguru asko, parekoak eduki dezakeen jarreraz kezkatu aurretik, nork bere aldartea kontrolatzea. Horrek ez du esan nahi erreakzionatu behar ez dugunik edo pasiboak izan behar dugunik. Bestela, presioa egiten digutenean, edo haserretuko zaizkigun beldur garenean, amore emateko joera izango dugu. Pasiboak bagara, ez gara gai sentitzen gatazkak kudeatzeko eta saihestu egiten ditugu. Horren aurrean, besteek indar handia hartzen dute, baita abusatu ere. •